

EUROPAKO TOPONIMIA FISIKOA

Europako geografia politikoaren leku-izen nagusiak zenbait arautan eman ondoren, Europako geografia fisikoari heldu dio Euskaltzaindiak, eta arau hau da emaitza. Hala, Europako geografia maila xehe samarrean arautu ondoren, Europako leku-izen nagusiak (fisikoak eta politikoak) euskaraz nola izendatu eta idatzi behar diren aski zehazturik geldituko da. Handik eta hemendik, hainbat esparrutatik (hezkuntzaren mundutik, komunikabideetatik, itzulpengintzatik, argitaletxeetatik —entziklopediagintza barne—) iritsia zen eskaera betetzera dator, beraz, arau hau.

Ez da hutsetik abiatutako lana. Europako geografia fisikoan zenbait leku-izen nagusiren grafia dagoeneko arautua du Euskaltzaindiak. Hala, 36. arauan (*Frantziako errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiriburu-izenak*), 52. arauan (*Munduko geografiako zenbait izen [mendiak, ibaiak, itsasoak]*), 59. arauan (*Ibaiak*), 60. arauan (*Aintzirak*) eta 70. arauan (*Mundu zabaleko uharte nagusiak*), Europako hainbat leku-izen agertzen dira. Hala ere, garrantzi geografikoa, historikoa edo geopolitikoa duten leku-izen ugari falta ziren. Horregatik, Europako geografia fisikoa sistematikoki arakatu, eta leku-izen garrantzitsuenak bildu dira. Errusia estatu handiari dagokionez, haren parte bat Europan dago eta gainerakoa Asian. Arau honetan, dena den, Errusia osoko leku-izenak ageri dira, kontuan hartu gabe Europakoak ala Asiakoak diren. Guztira, 450 leku-izenetik gora ageri dira arauan: lehendik araututa eta zenbait arautan sakabanatuta zeuden guztiak eta orain arte arautu gabeko beste asko.

Bilketa-lan sistematikoa egin da. Zazpi atal nagusitan sailkatu dira leku-izenak lantzeko eta aztertzeko:

- 1- Ibaiak
- 2- Aintzirak eta urtegiak
- 3- Itsasoak, golkoak eta itsasartea
- 4- Lurmuturrak eta penintsulak
- 5- Mendikateak
- 6- Mendiak
- 7- Uharteak

Lehenik, milaka leku-izen bildu dira. Garrantziaren bahetik pasarazi ondoren, bahetzea gainditu duen leku-izen bakoitzaren informazio xehea biltzea izan da hurrengo lana:

- Lehenik, informazio geografikoa: zer toponimo-mota den, zer estatu eta eskualdetakoa den, zergatik jotzen den garrantzitsutzat —tamaina (luzera, altuera, azalera), hurbiltasun geografikoa, historia, turismoa...—.
- Bigarrenik, erdal hizkuntzetako informazioa: leku-izena ingelesez, gaztelaniaz, frantsesez eta lekuaren bertako hizkuntz(et)an; baita beste hizkuntzetako formak ere, baldin eta lekuak hizkuntza askotan exonimoa badu: katalana, alemana, italiera, latina, greko...

- Hirugarrenik, euskarazko erabilerari buruzko informazioa: tradizioa —Orotariko Euskal Hiztegiaren corpusean, Klasikoen gordailuan— eta egungo erabilera —XX. mendeko euskararen corpus estatistikoan, Ereduzko Prosa corpusean, euskal entziklopedietan, *Berrian*...—.

Informazio hori aztertuta proposatu da lehenengo, eta arautu da gero, leku-izen bakoitzaren grafia. Kasu askotan, euskarazko grafia eta jatorrizko grafia bat dator. Hala gertatzen da leku-izenak euskaraz tradiziorik ez duenean eta inguruko hizkuntza nagusi gehienetan leku-izenaren grafia aldatzen ez denean. Adibidez, Txekiaro **Morava** ibaia, Norvegiako **Barents** itsasoa edo Danimarka eta Suedia arteko **Skagerrak** itsasartea. Egoera horretan daude leku-izen gehienak, hau da, kontuan izan behar da leku-izen baten grafia aldatzea salbuespena dela, berez tokian tokiko grafia erabiltzea baita egoera normala. Grafia-aldaaketa ez izan arren, arauan bildu dira horrelako leku-izenak, baldin eta garrantzia badute (tamainagatik, historiagatik edo ezaugarri bereziren bat izateagatik).

Beste batuetan, euskarazko grafia eta jatorrizko grafia bat dator, baina gaztelaniaz edo frantsesez, berriz, ez. Hala gertatzen da leku-izenak euskaraz tradiziorik ez duenean eta inguruko hizkuntza gehienetan leku-izenaren grafia ez aldatu arren gaztelaniaz edo frantsesez grafia-aldaaketa duenean. Horrelako leku-izenak ere arauan bildu dira, erabiltzaile euskaldunak zalantza egin dezakeelako horrelakoetan. Adibidez, **Kattegat** itsasartea berdin idazten da danieraz, norvegieraz, ingelesez, gaztelaniaz edo alemanez, baina **Cattégat** idazten da frantsesez. Alemaniako **Main** ibaia berdin idazten da alemanez, ingelesez eta frantsesez, baina **Meno** idazten da gaztelaniaz. Italiako **Cervino** sumendia berdin idazten da italieraz, ingelesez eta gaztelaniaz, baina **Cervin** idazten da frantsesez.

Beste askotan, euskarazko grafia eta jatorrizko grafia ez dator bat, ezta gaztelaniazkoa eta frantsesezkoa ere. Hala gertatzen da, nahiz eta leku-izenak euskaraz tradizio handirik ez izan, leku-izenaren grafia hizkuntza bakoitzak (edo hizkuntza nagusi gehienek) egokitzen dutenean. Horrelakoetan, euskaraz ere grafia egokitzea izan da irizpide nagusia. Adibidez, **Mare Tirreno** da italieraz, **Tyrrhenian Sea** ingelesez, **mar Tirreno** gaztelaniaz eta **mer Tyrrénienne** frantsesez. Edo **Fyn** da danieraz, **Funen** ingelesez, **Fionie** frantsesez eta **Fonia** gaztelaniaz. Euskaraz, **Tirreniar itsasoa** eta **Fonia**, hurrenez hurren. Leku-izenen grafia-egokitzapena egiteko irizpideak, oro har, maileguzko hitz berriak egokitzeko erabiltzen diren berak dira¹.

Hizkuntzaz hizkuntzako izen-aldaaketa gertatzen da, halaber, izen deskribatzaile askorekin, hizkuntza bakoitzera itzuli egiten baita (osorik edo partez), maiz, jatorrizko leku-izenaren esanahia. Holakoetan, euskaraz ere itzuli egin ohi dira. Adibidez, **Schwarzwald** alemanez, **Black Forest** ingelesez, **Forêt-Noire** frantsesez edo **Selva Negra** gaztelaniaz. **Storebælt** danieraz, **Great Belt** ingelesez, **Grand Belt** frantsesez eta **Gran Belt** gaztelaniaz. **Portile de Fier** errumanieraz, **Iron Gate** ingelesez, **Portes de Fer** frantsesez eta **Puertas de Hierro** gaztelaniaz. **Vierwaldstättersee** alemanez, **Lago dei Quattro Cantoni** italieraz, **lac des**

¹ Ez dago ortografia-sistema berariazko bat kanpoko leku-izenen grafia ebazteko, hau da, kanpoko hitz arruntak euskaraz emateko erabiltzen diren irizpideek balio dute kanpoko leku-izenetarako ere, oro har. Aipatu beharrekoa da, hala ere, **v** letraren salbuespena. Izan ere, lexiko arrunteko mailegu irentsietan erdal **v** letra **b** letraz ordeztu ohi da (**bokatibo**, **bulba**, **bentrikulu**, **bibrazio...**), baina kanpoko leku-izen (eta pertsona-izen) tradiziorik gabekoetan sistematikoki ez da gauzatzen ordezte hori, hala gure alfabetoa duten hizkuntzetatik egokitutako leku- eta pertsona-izenetan (Eskandinavia, Eslovakia, Geneva, Norvegia, Vatikanoa, Helvezia...; Oktavio, Vulkano, Vertzingetorix...), nola alfabeto zirilikotik transkribatutakoetan (Novosibirsk, Plovdiv, Txuvaxia...; Txekhov, Txaikovski...).

Quatre Cantons frantsesez, **Iago de los Cuatro Cantones** gaztelaniaz. Euskaraz ere itzuli egiten dira: **Oihan Beltza, Belt Handia, Burdinazko Ateak, Lau Kantonamenduetako aintzira.**

Azkenik, gure alfabetoa erabiltzen ez den lurralteetako lekuak izendatzeko, jatorrizko izenak latindar alfabetora aldatu behar dira, transkribatu egin behar dira.

Alfabeto grekoaren kasuan, leku-izenak historikoak dira, eta latina bitarteko dela pasatu dira gero gure inguruko hizkuntzetara. Kasu horretan, antzinateko leku-izenak euskaraz emateko irizpideak erabili dira (76. arauan ageri dira), antzinateko eskualdeen eta hirien arauetan egin zen bezala. Adibidez, **Ολυμπος** grekoz, **Olympus** ingelesez, **Olympe** frantsesez, **Olimpo** gaztelaniaz eta **Olinpo** euskaraz. **Σποράδες** grekoz, **Sporades** ingelesez eta frantsesez, **Espóradas** gaztelaniaz eta **Esporadak** euskaraz. **Ιθάκη** grekoz, **Ithaca/Ithaka** ingelesez, **Ithaque** frantsesez, **Ítaca** gaztelaniaz eta **Itaka** euskaraz.

Alfabeto zirlikoaren kasuan, 156. araua (*Alfabeto zirlikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistema*) erabiliz lortzen dira euskarazko ordainak. Adibidez, Errusiako **Иртыш** ibaia **Irtysh** da ingelesez eta gaztelaniaz, **Irtych** frantsesez eta **Irtyx** euskaraz. **Челюскин** lurmuturra **Chelyuskin** da ingelesez, **Tcheliouskine** frantsesez, **Cheliuskin** gaztelaniaz eta **Txeliuskin** euskaraz. Eta **Верхоянский** mendikatea **Verkhoyansk** da ingelesez, **Verkhoïansk** frantsesez, **Verjoyansk** gaztelaniaz eta **Verkhoiansk** euskaraz.

Argibide-oharrak

1- Izendapen bikoitzak

Batzuetan, lekuaren bi izendapen ageri dira. Bi izendapenak barra etzan batez bereizita daudenean, <A / B>, adierazi nahi da biak maila berean onartzen direla. Adibidez:

Alpe Peninoak / Valaisko Alpeak

Angara / Tunguska Garaia

Calaisko itsasartea / Doverko itsasartea

Cervino / Matterhorn

Beste batzuetan, hala ere, barra etzan batez bereizita ageri diren leku-izenak ez dira bi izendapen guztiz desberdin, izendapen beraren bi aldaera baizik. Adibidez:

Adriatikoa / Itsaso Adriatikoa

Dardaneloak / Dardaneloen itsasartea

Dolomitak / Dolomita Alpeak

Eskandinaviar penintsula / Eskandinaviako penintsula

Izendapen nagusi(ar)en ondoren, batzuetan beste izendapen bat erantsi da antzinako izendapena eransteiko edo bigarren mailako izendapena emateko. Adibidez:

Dardaneloak / Dardaneloen itsasartea / (antzinako izena) **Helesponto**

Dellen aintzirak (Ipar Dellen eta Hego Dellen)

Itsaso Beltza / (antzinako izena) **Ponto Euxino**

Kaukaso (Kaukaso Handia eta Kaukaso Txikia)

2- Leku-izena izendatzeko moduaz

Leku-izena izen bereziz bakarrik edo erdal hitzez bakarrik osatuta dagoenean, hau da, deskribatzailea ez denean edo beste leku-izen baten mendekoa ez denean, bakarrik erabil daiteke, ez du zertan agertu toponimo-mota adierazten duen hitzarekin; lehen aukera gisa bestelako arazorik gabe edo anbiguotasunik sortu gabe erabil badaiteke, hala erabili ohi da, eta hala jokatzea komeni da, gure inguruko leku-izenekin egin ohi dugun bezala (*Aralarrera joan dira eta ez Aralar mendira joan dira; Aizkorri mendian gabe, Aizkorri...*). Adibidez:

Danubio, Mont Blanc, Bosforo, Elba, Kamtxatka, Baikal, San Bizente, Kantauri

Arau honetan agertzen den leku-izen zerrendan, hala jokatu da leku-izenak idazteko orduan. Nolanahi ere, azken erabiltzailea kontuan izanik, eta ulergarritasuna eta didaktikotasuna helburu, toponimoaren izen bereziaz gainera, izen generikoa biltzen duen izendapena ere erakusten da arauan, parentesi zuzenen artean. Honela: **Danubio [Danubio ibaia]**.

Alabaina, toponimo-mota esplizitatu nahi edo behar izanez gero (adibidez, leku-izena ezezaguna zaigulako eta zer leku-mota den zehaztea komeni delako), ezker-hedapen biluziko aposizioak eratu ohi dira². Adibidez:

Danubio ibaia, Mont Blanc mENDIA, Bosforo itsasartea, Elba uhARTea, Kamtxatka penINTSULA, Baikal aINTZIRA, San Bizente lurMUTURRA, Kantauri itsASOA

Leku-izena beste izen baten (ia beti beste leku-izen baten) mendekoa denean, beharrezkoa da leku-izen mota zehaztea. Adibidez, **PauEKO uhAITZA, Konstantzako aINTZIRA, Bizkaiko golKOa** edo **Sargazoen itsASOA** izendapenek beste izen bat, erreferente bat, biltzen dute beren barnean, eta haien mendekoak dira: haien gabe ez daude definituta (**PauEKO uhAITZA, Konstantzako aINTZIRA, Bizkaiko golKOa** edo **Sargazoen itsASOA** esan/idatzi beharrean, **uhAITZA, aINTZIRA, golKOa** edo **sargAZO** bakarrik esanda/idatzita ez da nahikoa, ez dago jakiterik zer leku diren, oso-oso testuinguru berezietan izan ezik); eta leku-izen mota ere ezin da kendu, jakina (**PauEKO** hiri bat da, ez da uhaitz bat; **Konstantza** hiri bat da, ez da aintzira bat; **Bizkaia** lurralde bat da, ez da golko bat; **sargAZOA** alga bat da, ez da itsaso bat). Beste hainbeste gertatzen da leku-izenak <IZENA + ADJEKTIBOA> egitura duenean, non IZENA euskarazko leku-izen mota den. Horrelakoetan

² Ezker-hedapen biluziko aposizioekin batera, ezker-hedapen jantziko aposizioak (izenlagunezko aposizioak) ez dira ezinezkoak. Tradizioan badira *Jordango ibaia* (Lardizabal), *Larruneko mENDIA* (Elizanburu), *Matxitxakoko lurMUTURRA* (Klaudio Otaegi) eta abar, baina gutxiago erabili ohi dira. Horregatik, molde hori (*Danubioko ibaia, Mont Blanc-eko mENDIA, Bosforoko itsasartea, Elbako uhARTEA, Kamtxatka penINTSULA, Baikaleko aINTZIRA, San Bizente lurMUTURRA* edo *Kantauriko itsASOA*) ez da erabili zerrendetan.

ezinbestekoa da biak batera erabiltzea (oso testuinguru berezi eta zehaztuetan izan ezik). Adibidez, **Itsaso Beltza, Itsaso Zuria, Oihan Beltza**. Izena euskarazkoa ez bada, ez da ezinbestekoa. Adibidez, nahikoa da **Belt Handia** eta **Belt Txikia** adieraztea, eta ez da nahitaezkoa **Belt Handia itsasartea** eta **Belt Txikia itsasartea** zehaztea, **Belt** ez baita euskal izen bat.

Adjektiboa kalifikatzaila (**beltz, zuri, handi...** adjektibo kalifikatzailak dira) izan beharrean erreferentziala denean, ez da guztiz nahitaezkoa leku-izen mota zehaztea, baina, oso leku-izen ezagun eta erabilietan izan ezik, hobe da haietako leku-izen motarekin batera erabiltzea. Adibidez, **Adriatikoa, Atlantikoa, Baltikoa** eta **Jonikoa** besterik gabe erabil daitezke, oso ezagunak baitira, eta ez da nahitaezkoa **Itsaso Adriatikoa, Ozeano Atlantikoa, Itsaso Baltikoa** eta **Itsaso Jonikoa** adieraztea; hala ere, **Golko Saronikoa, Itsaso Zeltikoa, Julietar Alpeak, Tirreniar itsasoa** edo **Iberiar sistema** leku-izenetan, egokiagoa da —eta, maiz, ezinbestekoa— osorik adieraztea, eta ez **Saronikoa, Zeltikoa, Julietarra, Tirreniarra**, edo **Iberiarra** bakarrik.

3- Diakritikoak

Euskaraz grafia-aldeketa ez duten leku-izenak jatorrizkoan bezala idazten dira. Leku-izen horietako batzuek zeinu diakritikoak dituzte, eta zeinu horiek beharrezkoak dira leku-izenaren ahoskera edo azentuazio zuzena ziurtatzeko. Arau honetan, zeinu diakritiko horiek agertzen dira euskarazko izendapenean ere (adibidez, **Canigó, Göta, Soča, Júcar, Mälaren, Mureş, Öland, Øresund, Sûre, Vištytis...**), eta hala idaztea komeni da idazkera jaso zainduan. Nolanahi ere, diakritikorik gabe idatz daitezke maila apalagoko testuetan.

4- Arau honek orain arteko arauetan eragiten dituen egokitzapenak

Arau honen ondorioz, Euskaltzaindiak orain arte emandako arauetan egokitzapen hauek egin behar dira:

| Araua | Jatorrizko testua | Egokitzapena | Oharra |
|-------|-----------------------|---|--|
| 52 | Bizkaiko Golkoa | Bizkaiko golkoa | Izen generikoa minuskulaz |
| 52 | Ipar Itsasoa | Ipar itsasoa | Izen generikoa minuskulaz |
| 52 | Kaspiai itsasoa | Kaspiai itsasoa | Izen generikoa minuskulaz |
| 52 | Itsaso Jonikoa | Jonikoa / Itsaso Jonikoa | Izen generikorik gabe ere erabil daiteke |
| 59 | Tunguska Garaia | Tunguska Garaia / Angara | Bi izen ditu |
| 59 | Drome | Drôme | Araututa dagoen Drôme departamendua bezala |
| 59 | Irtish | Irtyx | Alfabeto zirilikoa transkribatzeko irizpidea ezarri duen 156. arauaren ondorioa da |
| 59 | Mendebaldeko Dvina | Mendebaldeko Dvina / Daugava | Bi izen ditu |
| 59 | Oloroeko ibaia | Oloroeko uhaitza | Pauuko uhaitza forma arautuarekin bateratzeko |
| 59 | Rhur | Ruhr | idazte-akatsa |
| 60 | Como | Comoko aintzira | Gardako aintzira bezala (Como hiri-izena da) |
| 60 | Lau Kantoien aintzira | Lau Kantonamenduetako aintzira / Luzernako aintzira | Lehenik, Hiztegi Batuak <i>kantonamendu</i> arautu du; bigarrenik, leku-genitiboa hobetsi da; hirugarrenik, bi izen ditu |

| Araua | Jatorrizko testua | Egokitzapena | Oharra |
|-------|--|--|---|
| 69 | Leman | Léman | Diakritikoarekin |
| 70 | Anglo-normandar uharteak (Ikus Kanaleko uharteak) Anglo-normandar uharteetan / Anglo-normandar uharteetako Kanaleko uharteak (Anglo-Normandar uharteak) | Anglo-normandiar uharteak (Ikus Kanaleko uharteak) Anglo-normandiar uharteetan / Anglo-normandiar uharteetako Kanaleko uharteak (Anglo-normandiar uharteak) | Normandia + -ar = normandiar |
| 70 | Ithaka | Itaka | 76. arauko irizpideekin bat etorrarazteko |

52. araua (1995/12/29): Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)

59. araua (1996/05/31): Ibaik

60. araua (1996/05/31): Aintzirak

70. araua (1997/03/21 eta 1997/04/25): Mundu zabaleko uharte nagusiak

Arau honetako zerrendak toki eta egun hauetan onartu ditu Euskaltzaindiak:

2009ko azaroaren 27an, Donostian.

2009ko abenduaren 17an, Bilbon.

2010eko urtarrilaren 29an, Donostian.

2010eko otsailaren 26an, Bilbon.

2010eko apirilaren 30ean, Bilbon.

2010eko ekainaren 25ean, Bilbon.

(Exonomastika batzordeak 2010eko uztailaren 15ean paratua)

EUSKARA-ERDARAK ZERRENDA

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|---|--|--|
| Aar [Aar ibaia] | Aar (frantsesa) Aare (alemana) | Aar | Aar | Aar |
| Adige [Adige ibaia] | Adige (italiera) | Adigio | Adige | Adige |
| Adriatikoa / Itsaso Adriatikoa | Mare Adriatico (italiera) Deti Adriatik (albaniera) Jadransko morje (esloveniera) | mar Adriático | mer Adriatique | Adriatic Sea |
| Aiguilles Rouges [Aiguilles Rouges mendiak] | Aiguilles Rouges (frantsesa) | Agujas Rojas | Aiguilles Rouges | Aiguilles Rouges |
| Ajoko lurmuturra | cabo de Ajo (gaztelania) | cabo de Ajo | cap de Ajo | |
| Alborango itsasoa | mar de Alborán (gaztelania) | mar de Alborán | mer d'Alboran | Alboran Sea |
| Aldan [Aldan ibaia] | Алдан (errusiera) | Aldan | Aldan | Aldan |
| Alexandretako golkoa / Iskenderungo golkoa | İskenderun Körfezi (turkiera) | golfo de İskenderun / golfo de Alejandreta | golfe d'İskenderun / golfe d'Alexandrette | Gulf of İskenderun / Gulf of Alexandretta |
| Alföld / Alföld Handia / Hungariako Ordoki Handia | Alföld / Nagyalföld (hungariera) | Gran Llanura Húngara / Gran Alföld / Alföld | grande plaine de Hongrie / grand Alföld / Alföld | Great Hungarian Plain / Great Alföld, Alföld |
| Alpe Peninoak / Valaisko Alpeak | Alpes valaisannes (frantsesa) Walliser Alpen (alemana) Alpi Pennine / Alpi del Vallese (italiera) | Alpes Peninos / Alpes Valaisanos | Alpes valaisannes / Alpes pennines | Pennine Alps / Valais Alps |
| Alpeak [Alpe mendiak] | Alpes (frantesa) Alpen (alemana) Alpi (italiera) Alpe (esloveniera) | Alpes | Alpes | Alps |
| Alpeaurreak | Préalpes (frantsesa) Prealpi (italiera) Voralpen / Alpenvorland (alemana) | Prealpes | Préalpes | Prealps |
| Altai | Алтай | macizo de Altai | Altaï / Altai | Altai |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|--|--|---|
| [Altai mendiak] | (errusiera) Алтай / Алтайн нуруу (mongoliera) | | | Mountains |
| Amur [Amur ibaia] | Amýr (errusiera) Heilong Jiang (txinera) | Amur | Amour | Amur |
| Anbaziako golkoa / Artako golkoa | Αμβρακικός κόλπος (grekoa) | golfo de Arta / golfo de Ambracia / golfo de Accio | golfe Ambracique / golfe d'Arta | Ambracian Gulf / Gulf of Arta / Gulf of Actium / Amvrakikos Gulf |
| Aneto [Aneto mendia] | Aneto (aragoiera, okzitaniera) | Aneto | Aneto | Aneto |
| Angara / Tunguska Garaia | Ангарá / Верхняя Тунгуска (errusiera) | Angara / Tunguska Superior | Angara / Toungouska supérieure | Angara / Upper Tunguska |
| Anglo-normandiar uhartek / Kanaleko uhartek | Manche, îles d'la (normandiera) | islas Anglo- Normandas | îles Anglo- Normandes / îles de la Manche | Channel Islands |
| Antalyako golkoa | Antalya Körfezi (turkiera) | golfo de Antalya | golfe d'Antalya | Gulf of Antalya |
| Apeninoak [Apenino mendiak] | Appennini (italiera) | montes Apeninos | Apennins | Apennines / Apennine Mountains |
| Apeninoetako penintsula / Italiar penintsula | Península italiana / Península appenninica (italiera) | península Itálica | péninsule italienne / péninsule italique | Italian Peninsula or Apennine Peninsula |
| Aragoi [Aragoi ibaia] | Aragoi (euskarra) Aragón (gaztelania) | Aragón | Aragon | Aragón |
| Ardèche [Ardèche ibaia] | Ardèche (frantsesa) Ardecha (okzitaniera) | Ardèche | Ardèche | Ardèche |
| Ardenetako mendigunea | Massif ardennais (frantsesa) | macizo de las Ardenas | Massif ardennais | Ardennes Massif |
| Argun [Argun ibaia] | Hailar He (txinera) Аргунъ (errusiera) | Argun | Argoun | Argun |
| Ariège [Ariège ibaia] | Ariège (frantsesa) Arièja (okzitaniera) | Ariège | Ariège | Ariège |
| Arkona [Arkona lurmuturra] | Kap Arkona (alemana) | cabo Arkona | cap Arkona | Cape Arkona |
| Armorikako mendigunea | Massif Armorican (frantsesa) | macizo Armoriciano | Massif armorican | Armorican Massif |
| Arno [Arno ibaia] | Arno (italiera) | Arno | Arno | Arno |
| Artako golkoa / | Αμβρακικός κόλπος | golfo de Arta / | golfe | Ambracian |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|---|--|--|
| Anbraziako golkoa | (grekoa) | golfo de Ambracia / golfo de Accio | Ambracique / golfe d'Arta | Gulf / Gulf of Arta / Gulf of Actium / Amvrakikos Gulf |
| Asturiasko mendigunea | macizo Asturiano (gaztelania) | macizo Asturiano | Massif asturien | Asturian Massif |
| Aventino [Aventino muinoa] | Mons/Collis Aventinus; Aventinum (latina) | Aventino | Aventin | Aventine Hill |
| Aveyron [Aveyron ibaia] | Aveyron (frantsesa) Avairon (okzitaniera) | Aveyron | Aveyron | Aveyron |
| Axios / Vardar [Axios ibaia / Vardar ibaia] | Вардар (mazedoniera) Αξιός (grekoa) | Vardar | Vardar / Axios | Vardar / Axios |
| Azoreak [Azore uharteak] | Açores (portugesa) | Azores | Açores | Azores |
| Azoveko itsasoa | Азóвское мóре (errusiera) Азóвське мóре (ukrainera) | mar de Azov | mer d'Azov | Sea of Azov |
| Baikal [Baikal aintzira] | Байка́л (errusiera) Байгал (buriatera) | Baikal | Baïkal | Baikal |
| Baikal [Baikal mendikatea / Baikal mendiak] | Байкальский хребет (errusiera) | montes Baikal | monts Baïkal | Baikal Mountains / Baikal Range |
| Balaitus [Balaitus mendia] | Vathleitosa (okzitaniera) Balaitus (gaztelania) Balaïtous (frantsesa) | Balaitus | Balaïtous | Balaitus/ Balaïtous |
| Balaton [Balaton aintzira] | Balaton (hungariera) | Balatón | Balaton | Balaton |
| Balearrak [Balear uharteak] | Balears, illes (katalana) | islas Baleares | Baléares, îles | Balearic Islands |
| Balkanak [Balkanetako mendikatea] | Стара планина (bulgariera) Stara planina (serbiera) | montes Balcanes / cordillera de los Balcanes | Grand Balkan | Balkan Mountains |
| Balkanak [Balkanetako penintsula] | Peninsula Balcanică (errumaniera) Балканският полуостров (bulgariera) Balkánsky poloostrov (esloveniera) Gadishulli Ballkanik (albaniera) Βαλκανία | península Balcánica / península de los Balcanes | péninsule des Balkans / péninsule balkanique | Balkan Peninsula / Balkans |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|-----------------------|--------------------------------|--|
| | (grekoa) Balkan (kroaziera, serbiera) | | | |
| Baltikoa / Itsaso Baltikoa | Itämeri (finlandiera) Østersøen (daniera) Ostsee (alemana) Østersjøen (norvegiera) Östersjön (suediera) Baltijas jūra (letoniera) Baltijos jūra (lituaniera) Morze Bałtyckie (poloniera) | mar Báltico | mer Baltique | Baltic Sea |
| Barents [Barents itsasoa] | Barentshavet (norvegiera) Баренцево море (errusiera) | mar de Barents | mer de Barents | Barents Sea |
| Beloie [Beloie aintzira] | Белое | Belye | Beloïe | Belye |
| Belt Handia | Storebælt (daniera) | Gran Belt | Grand Belt | Great Belt |
| Belt Txikia | Lillebælt (daniera) | Pequeño Belt | Petit Belt | Little Belt |
| Bering [Bering itsasoa] | Bering Sea (ingelesa) Берингово море (errusiera) | mar de Bering | mer de Béring / mer de Behring | Bering Sea |
| Bernako Alpeak | Berner Alpen (alemana) | Alpes berneses | Alpes bernoises | Bernese Alps |
| Beskideak [Beskide mendiak] | Beskydy (poloniera) Beskydy (txekiera, eslovakiera) Бескиды (errusiera) Бескиди (ukrainera) | Beskides | Beskides | Beskids |
| Bizkaiko golkoa | golfe de Gascogne (frantsesa) golfo de Vizcaya (gaztelania) | golfo de Vizcaya | golfe de Gascogne | Bay of Biscay |
| Bohemiako oihana | Böhmerwald; Bayerischer Wald (alemana) Šumava; Zadní Bavorštík (txekiera) | selva de Bohemia | Forêt de Bohême | Bohemian Forest |
| Bonifacioko itsasartea | Bocche di Bonifacio (korsikera) Bocchi di Bonifacio (gallurera) | estrecho de Bonifacio | Bouches de Bonifacio | Strait of Bonifacio |
| Bosforo [Bosforo itsasartea] | İstanbul Boğazı (turkiera) | Bósforo | Bosphore | Bosphorus / Bosporus / Istanbul Strait |
| Botniako badia | Perämeri (finlandiera) | bahía de Botnia | baie de Botnie | Bothnian Bay / Bay of |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|----------------------|-------------------|--------------------------------|
| | Bottenviken (suediera) | | | Bothnia |
| Botniako golkoa | Pohjanlahti (finlandiera) Botniska viken (suediera) | golfo de Botnia | golfe de Botnie | Gulf of Bothnia |
| Botniako itsasoa | Selkämeri (finlandiera) Bottenhavet (suediera) | mar de Botnia | mer de Botnie | Bothnian Sea |
| Britainia Handia [Britainia Handia uhartea] | Great Britain (ingelesa) Prydain Fawr (galesera) Breatainn Mhòr (Eskoziako gaelikoa) | Gran Bretaña | Grande-Bretagne | Great Britain |
| Britainiar uharteak | British Isles (ingelesa) Éire agus an Bhreatain Mhór (irlandera) Eileanan Bhreatainn (Eskoziako gaelikoa) Ynysoedd Prydain (galesera) Ny h-Ellanyn Goaldagh (manxera) | Islas Británicas | îles Britanniques | British Isles |
| Burdinazko Ateak ³ | Portile de Fier (errumaniera) Đerdapska klisura / Ђердапска клисура (serbiera) | Puertas de Hierro | Portes de Fer | Iron Gate |
| Cabrera [Cabrera uhartea] | Cabrera (katalana) | Cabrera | Cabrera | Cabrera |
| Calaisko itsasartea / Doverko itsasartea | Strait of Dover (ingelesa) Pas de Calais (frantsesa) | paso de Calais | pas de Calais | Strait of Dover / Dover Strait |
| Canigó [Canigó mendia] | Canigó (katalana) | Canigó | Canigou | Canigou |
| Capri [Capri uhartea] | Capri (italiera) | Capri | Capri | Capri |
| Cervino / Matterhorn [Cervino mendia / Matterhorn mendia] | Matterhorn (alemana) Monte Cervino (italiera) | Cervino / Matterhorn | mont Cervin | Cervino / Matterhorn |
| Chafarinak [Chafarin uharteak] | Chafarinás (gaztelania) | islas Chafarinás | Zaffarines, îles | Chafarinás Islands |
| Charente [Charente ibaia] | Charente (frantsesa) Charanta (okzitaniera) | Charente | Charente | Charente |
| Comoko aintzira | Como (italiera) | Como | Côme | Como |

³ Berez, Danubio ibaiko arroila bat da, Errumania eta Serbia arteko. Bertan daude izen bereko presa eta urtegia ere.

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|--|---|---|
| | Lagh de Comm (bertako lombardiera) | | | |
| Corrèze [Corrèze ibaia] | Corrèze (frantsesa) Corresa (okzitaniera) | Corrèze | Corrèze | Corrèze |
| Corsen [Corsen punta] | pointe de Corsen (frantsesa) | punta de Corsen | pointe de Corsen | Pointe de Corsen |
| Cotentin [Cotentin penintsula] | péninsule du Cotentin (frantsesa) | península del Cotentin | péninsule du Cotentin | Cotentin Peninsula / Cherbourg Peninsula |
| Creus [Creus lurmuturra] | cap de Creus (katalana) | cabo de Creus | cap de Creus | Cap de Creus |
| Danubio [Danubio ibaia] | Donau (alemana) | Danubio | Danube | Danube |
| Dardaneloak / Dardaneloen itsasartea / (antzinako izena) Helesponto | Çanakkale Boğazı (turkiera) | estrecho de los Dardanelos / (antzinako izena) Helesponto | détroit des Dardanelles / (antzinako izena) Hellespont | Dardanelles / (antzinako izena) Hellespont |
| Daugava / Mendebaldeko Dvina [Daugava ibaia Mendebaldeko Dvina ibaia] | Западная Двина (errusiera) Заходняя Дзвіна (bielorrusiera) Daugava (letoniera) | Daugava / Dvina Occidental | Dvina occidentale / Daugava | Daugava / Western Dvina / Dzvina |
| Dellen aintzirak (Ipar Dellen eta Hego Dellen) | Dellensjöarna / Dellen (suediera) | Iagos Dellen | Iacs Dellen | Dellen |
| Dezhniov [Dezhniov lurmuturra] | мыс Дежнёва (errusiera) | cabo Dezhneva / cabo de Dezhnev | cap Dejnev | Cape Dezhnyov / Cape Dezhnev |
| Dinariar Alpeak | Alpet Dinaride / Alpet Dinarike (albaniera) Dinarske planine / Dinaridi (bosniera) Dinarsko gorje / Dinaridi (kroaziera) Динарске планине / Динариди (serbiera) Dinarsko gorstvo (esloveniera) | Alpes Dináricos | Alpes dinariques | Dinaric Alps / Dinarides |
| Dnieper [Dnieper ibaia] | Днепр (errusiera) | Dniéper | Dniepr | Dnieper |
| Dniester [Dniester ibaia] | Дністер (ukrainera) Nistru (errumaniera) | Dniéster | Dniestr | Dniester |
| Dodekaneso | Δωδεκάνησα (grekoa) | Dodecaneso | Dodécanèse | Dodecanese |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|---------------------|-------------------|--------------------------------|
| [Dodekaneso uhartea] | | | | |
| Dofinerriko Alpeak | Alpes du Dauphiné (frantsesa) | Alpes del Delfinado | Alpes du Dauphiné | Dauphiné Alps |
| Dojran / Dorian [Dojran aintzira / Dorian aintzira] | Дојранско Езеро (mazedoniera) Λίμνη Δοϊράνη (grekoa) | Doiran / Dojran | Dojran / Doiran | Doiran / Dojran |
| Dolomitak / Dolomita Alpeak | Dolomiten (alemana) Dolomiti (italiera) Dolomitis (friuliera) | Dolomitas | Dolomites | Dolomites |
| Don [Don ibaia] | Дон (errusiera) | Don | Don | Don |
| Donets [Donets ibaia] | Донец (errusiera) Донець (ukrainera) | Donets | Donets | Donets |
| Dordoina [Dordoina ibaia] | Dordogne (frantsesa) Dordonha (okzitaniera) | Dordoña | Dordogne | Dordogne |
| Dorian / Dojran [Dorian aintzira / Dojran aintzira] | Дојранско Езеро (mazedoniera) Λίμνη Δοϊράνη (grekoa) | Doiran / Dojran | Dojran / Doiran | Doiran / Dojran |
| Doverko itsasartea / Calaisko itsasartea | Strait of Dover (ingelesa) Pas de Calais (frantsesa) | paso de Calais | pas de Calais | Strait of Dover / Dover Strait |
| Drava [Drava ibaia] | Drava (italiera, kroaziera, esloveniera) Drau (alemana) Dráva (hungariera) | Drava | Drave | Drave |
| Drin [Drin ibaia] | Drin (albaniera) | Drin | Drin | Drin |
| Drôme [Drôme ibaia] | Drôme (frantsesa) Droma (okzitaniera) | Drôme | Drôme | Drôme |
| Dronne [Dronne ibaia] | Dronne (frantsesa) Drona (okzitaniera) | Dronne | Dronne | Dronne |
| Duero [Duero ibaia] | Duero (gaztelania) Douro (portugesa) | Duero | Douro / Duero | Douro / Duero |
| Durance [Durance ibaia] | Durance (frantsesa) Durença (okzitaniera) | Duranza / Durance | Durance | Durance |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|--|---|----------------------------------|
| Dykhtau [Dykhtau mendia] | Дыхтай (errusiera) Дых тай (karatxaiera-balkarerera) | Dij-Tau / Dykh-Tau / Dykhtau | Dykh-Tau / Dykhtau | Dykh-Tau / Dykhtau |
| Ebro [Ebro ibaia] | Ebro (euskarra, gaztelania) Ebre (katalana) | Ebro | Èbre | Ebro |
| Egeo [Egeo itsasoa] | Αιγαίο Πέλαγος (grekoa) Ege Denizi (turkiera) | mar Egeo | mer Égée | Aegean Sea |
| Eivissa [Eivissa uhartea] | Eivissa (katalana) | Ibiza | Ibiza / Iviza | Ibiza |
| Ekialdeko Neisse [Ekialdeko Neisse ibaia] | Nysa Kłodzka (poloniera) | Neisse Oriental | Neisse de Glatz / Neisse Orientale / Nysa Kłodzka | Nysa Kłodzka / Eastern Neisse |
| Ekialdeko Siberiako itsasoa | Восточно-Сибирское море (errusiera) | mar de Siberia Oriental / mar Siberiano del Este | mer de Sibérie orientale | East Siberian Sea |
| Elba [Elba ibaia] | Labe (txekiera) Elbe (alemana) | Elba | Elbe | Elbe |
| Elba [Elba uhartea] | Elba (italiera) | Elba | Elbe | Elba |
| Elbrus [Elbrus mendia] | Эльбрус (errusiera) Минги-Тай (karatxaiera-balkarerera) | Elbrus | Elbrous / Elbrouz | Elbrus |
| Erdialdeko Mendigunea / Massif Central | Massif Central (frantsesa) | Macizo Central | Massif central | Massif Central |
| Erdialdeko Sistema | Sistema Central (gaztelania) | Sistema Central / cordillera Carpetovetónica | Système central | Sistema Central / Central System |
| Erne (Erne Garaia eta Erne Beherea) [Erne aintzirak] | Lough Erne (ingelesa) Loch Éirne (irlandera) | Erne | Erne | Lough Erne |
| Erraldoien Galtzada ⁴ | Giant's Causeway (ingelesa) Clochán na bhFómharach (Irlandako gaelikoa) | Calzada de los Gigantes | Chaussée des Géants | Giant's Causeway |
| Erraldoien mendiak / Karkonosze [Karkonosze] | Karkonosze (poloniera) Krkonoše (txekiera) | montañas de los Gigantes / Karkonosze | monts des Géants | Giant Mountains |

⁴ Itsaslabar bat da

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|--|--|--|---|
| mendiak] | | | | |
| Errolanen Arraila | brèche de Roland (frantsesa) Brecha de Rolando (gaztelania) Breca Roldán (aragoiera) | Brecha de Rolando | brèche de Roland | Breca Roldán |
| Eskalda [Eskalda ibaia] | Escaut (frantsesa) Schelde (nederlandera) | Escalda | Escaut | Scheldt |
| Eskandinaviako Alpeak / Eskandinaviako mendiak | Skanderna / Fjällen / Kölen (suediera) Köli (finlandiera) Kjølen (norvegiera) | montes Escandinavos / Alpes Escandinavos | Alpes scandinaves / Scandes | Scandinavian Mountains |
| Eskandinaviar penintsula / Eskandinaviako penintsula | Skandinavian niemimaa (finlandiera) Skandinaviske halvøy (norvegiera) Skandinaviska halvön (suediera) | península Escaninava | péninsule Scandinave | Scandinavian Peninsula |
| Eskilino [Eskilino muinoa] | Mons/Collis Esquilinus; Esquilineum (latina) | Esquilino | Esquiline | Esquiline Hill |
| Esmirnako golkoa / Izmirko golkoa | İzmir Körfezi (turkiera) | golfo de İzmır / golfo de Esmirna | golfe d'İzmır / golfe de Smyrne | Gulf of İzmır / Gulf of Smyrna |
| Esporadak [Esporada uharteak] | Σποράδες (grekoa) | Espóradas | Sporades | Sporades |
| Estaca de Bares [Estaca de Bares lurmuturra] | cabo de Estaca de Bares (gaztelania) | cabo de Estaca de Bares / punta de Estaca de Bares | cap Estaca de Bares | Estaca de Bares Cape |
| Estrimon (antzinako izena) / Struma [Struma ibaia] | Струма (bulgariera) Στρυμόνας (grekoa) Στρυμών (antzinako grekoa) | Estrimón | Strymon | Struma / Strymónas / Strymōn (antzinako izena) |
| Eubeako golkoa | Ευβοϊκός Κόλπος (grekoa) | golfo de Eubea / golfo Euboico | golfe d'Eubée | Gulf of Euboea / Euboic Sea / Euboic Gulf |
| Euripo [Euripo itsasartea] | Εύριπος (grekoa) | estrecho de Euripo | détroit de l'Euripe | Euripus Strait |
| Europako mendiak | Picos de Europa (gaztelania) | Picos de Europa | Pics d'Europe | Picos de Europa |
| Evros / Maritsa [Evros ibaia / Maritsa ibaia] | Марица (bulgariera) Έβρος (grekoa) Meriç (turkiera) | Maritsa / Evros / Hebro (antzinako izena) | Maritsa / Maritza / Evros / Hèbre (antzinako izena) | Maritsa / Evros / Hebrus (antzinako izena) |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|---|--|---|---|
| Faroeak [Faroe uharteak] | Føroyar (faroera) Færøerne (daniera) | Faroe | Féroé | Faroe Islands |
| Fennoskandia [Fennoskandia penintsula] | Fennoskandia (finlandiera, norvegiera) | Fennoscandia | Fennoscandie | Fennoscandia |
| Ferrat [Ferrat lurmuturra] | cap Ferrat (frantsesa) | cabo Ferrat | cap Ferrat | Cape Ferrat |
| Ferret [Ferret lurmuturra] | cap Ferret (frantsesa) | cabo Ferret | cap Ferret | Cape Ferret |
| Fertő / Neusiedl [Fertő aintzira / Neusiedl aintzira] | Neusiedlersee (alemana) Fertő tó (hungariera) | lago Neusiedl / lago Fertő | lac de Neusiedl / lac Fertő | Neusiedl |
| Finisterre / Fisterra [Finisterre lurmuturra / Fisterra lurmuturra] | cabo Fisterra (galiziera) | cabo Finisterre | cap Finisterre | Cape Finisterre |
| Finlandiako golkoa | Suomenlahti (finlandiera) Финский залив (errusiera) Soome laht (estoniera) | golfo de Finlandia | golfe de Finlande | Gulf of Finland |
| Fonia [Fonia uhartea] | Fyn (daniera) | Fonia | Fionie | Funen |
| Fisterra / Finisterre [Fisterra lurmuturra / Finisterre lurmuturra] | cabo Fisterra (galiziera) | cabo Finisterre | cap Finisterre | Cape Finisterre |
| Formentera [Formentera uhartea] | Formentera (katalana) | Formentera | Formentera | Formentera |
| Frankoniako Jura | Fränkische Alb / Frankenalb / Fränkischer Jura (alemana) | Jura Francón / Jura de Franconia | Jura franconien | Franconian Jura |
| Frisiako uharteak | Waddeneilanden (nederlandera) Friesischen Inseln (alemana) Vadehavssøer / De Frisiske Øer (daniera) | islas Frisias | îles de la Frise / îles Frisonnes / archipel Frison | Frisian Islands / Wadden Islands |
| Fuerteventura [Fuerteventura uhartea] | Fuerteventura (gaztelania) | Fuerteventura | Fuerteventura / (antzinako izena) Fortaventure | Fuerteventura |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|--|--|---|---|-------------------------------|
| Gaetako golkoa | golfo di Gaeta (italiera) | golfo de Gaeta | golfe de Gaète | Gulf of Gaeta |
| Galizia-Leongo mendigunea | macizo Galaico-Leonés / macizo Galaico-Duriense (gaztelania) macizo Galaico-Duriense (portuguesa) | macizo Galaico-Leonés / macizo Galaico-Duriense | | |
| Gardako aintzira | lago di Garda / Benàco (italiera) | lago de Garda | lac de Garde | Lake Garda |
| Garona [Garona ibaia] | Garonne (frantsesa) Garona (okzitaniera, katalana, gaztelania) | Garona | Garonne | Garonne |
| Gata [Gata lurmuturra] | cabo de Gata (gaztelania) | cabo de Gata | cap de Gata | Cabo de Gata headland |
| Genovako golkoa | golfo di Genova (italiera) | golfo de Génova | golfe de Gênes | Gulf of Genoa |
| Gibraltarko itsasartea | estrecho de Gibraltar (gaztelania) | estrecho de Gibraltar | détroit de Gibraltar | Strait of Gibraltar |
| Gimone [Gimone ibaia] | Gimone (frantsesa) Gimona (okzitaniera) | Gimone | Gimone | Gimone |
| Gironda [Gironda(ko) estuarioa] | Gironde (frantsesa) Gironda (okzitaniera) | Gironda | Gironde | Gironde |
| Glåma / Glomma [Glåma ibaia / Glomma ibaia] | Glomma / Glåma (norvegiera) | Glomma / Glåma | Glommen / Glomma / Glåma | Glomma / Glåma |
| Glarisko Alpeak | Alpes glaronaises (frantsesa) Glarner Alpen (alemana) | Alpes glaroneses | Alpes glaronaises | Glarus Alps |
| Glomma / Glåma [Glomma ibaia / Glåma ibaia] | Glomma / Glåma (norvegiera) | Glomma / Glåma | Glommen / Glomma / Glåma | Glomma / Glåma |
| Golko Saronikoa | Σαρωνικός κόλπος (grekoa) | golfo Sarónico / golfo de Egina | golfe Saronique / golfe de Salamine / golfe d'Egine | Saronic Gulf / Gulf of Aegina |
| Gomera [Gomera uhartea] | Gomera, La (gaztelania) | Gomera, La | Gomera, La | Gomera, La |
| Gorkiko urtegia | Гор'ковское водохранилище (errusiera) | embalse de Gorki | réservoir de Gorki | Gorky Reservoir |
| Göta [Göta ibaia] | Göta (suediera) | Göta | Göta | Göta |
| Gotland | Gotland (suediera) | Gotland | Gotland | Gotland |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|---|---|
| [Gotland uhartea] | | | | |
| Grampianak [Grampian mendiak] | Am Monadh (Eskoziako gaelikoa) | montes Grampianos | monts Grampians | Grampian Mountains / Grampians |
| Gran Paradiso [Gran Paradiso mendia] | Gran Paradiso (italiera) | Gran Paradiso | Grand Paradis | Gran Paradiso |
| Grave [Grave punta] | pointe de Grave (frantsesa) | punta de Grave | pointe de Grave | Pointe de Grave |
| Grímsey [Grímsey uhartea] | Grímsey (islandiera) | Grímsey | Grímsey | Grímsey |
| Guadalquivir [Guadalquivir ibaia] | Guadalquivir (gaztelania) | Guadalquivir | Guadalquivir | Guadalquivir |
| Guadiana [Guadiana ibaia] | Guadiana (gaztelania) | Guadiana | Guadiana | Guadiana |
| Guernesey [Guernesey uhartea] | Guernési (guerneseyera) | Guernesey / Guernsey | Guernesey | Guernsey |
| Gyda [Gyda penintsula] | Гыдáнский полуостров (errusiera) | península de Guida | péninsule de Gyda | Gyda peninsula / Gydan Peninsula |
| Harz [Harz mendigunea] | Harz (alemana) | Harz | Harz / Hartz | Harz |
| Hebridak [Hebrida uharteak] | Innse Gall (Eskoziako gaelikoa) Hebrides (ingelesa) | Hebridas | Hébrides | Hebrides |
| Hebridetako itsasoa | Sea of the Hebrides (ingelesa) Na h-Eileanan a-staigh (Eskoziako gaelikoa) | mar de las Hébridas | mer des Hébrides | Sea of the Hebrides |
| Hego Esporadak [Hego Esporada uharteak] | Nότιες Σποράδες (grekoa) | Espórdadas del Sur / Espórdadas meridionales | Sporades du Sud | Southern Sporades |
| Hegoaldeko Bug [Hegoaldeko Bug ibaia] | Південний Буг (ukrainera) | Bug Meridional | Boug méridional / Boug oriental | Southern Bug |
| Hegoaldeko Karpatoak / Transilvaniako Alpeak | Carpații Meridionali (errumaniera) | Cárpatos Meridionales / Alpes de Transilvania | Carpates du Sud / Alpes de Transylvanie | Southern Carpathians / Transylvanian Alps |
| Helesponto (antzinako izena) / Dardaneloak / Dardaneloen itsasartea | Çanakkale Boğazı (turkiera) | Dardanelos / estrecho de los Dardanelos / (antzinako izena) Helesponto | détroit des Dardanelles / Dardanelles / (antzinako izena) Hellespont | Dardanelles / (antzinako izena) Hellespont |
| Hérault | Hérault | Hérault | Hérault | Hérault |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|---|---|
| [Hérault ibaia] | (frantsesa) Erau / Eraur (okzitaniera) | | | |
| Hierro [Hierro uhartea] | Hierro, El (gaztelania) | Hierro, El | Hierro, El | Hierro, El |
| Hohe Tauern [Hohe Tauern mendigunea] | Hohe Tauern (alemana) Alti Tauri (italiera) | Hohe Tauern | Hohe Tauern | Hohe Tauern |
| Hungariako Ordoki Handia / Alföld Handia / Alföld | Alföld / Nagyalföld (hungariera) | Gran Llanura Húngara / Gran Alföld / Alföld | grande plaine de Hongrie / grand Alföld / Alföld | Great Hungarian Plain / Great Alföld, Alföld |
| Iberiar goi-lautada | Meseta Ibérica / Meseta Central (gaztelania) | Meseta Ibérica / Meseta Central | Meseta centrale / Meseta Ibérique | Meseta Ibérica / Meseta Central |
| Iberiar penintsula | península Ibérica (gaztelania) | península Ibérica | péninsule Ibérique | Iberian Peninsula |
| Iberiar sistema | Sistema Ibérico (gaztelania) | Sistema Ibérico | Système ibérique / Monts ibériques | Sistema Ibérico / Iberian System |
| IJsselmeer / IJssel aintzira | IJsselmeer | IJsselmeer / lago IJssel | IJsselmeer | IJsselmeer / Lake IJssel / Lake Yssel |
| Ikaria [Ikaria uhartea] | İkaria (grekoa) | Icaria | Icarie | Icaria / Ikaria |
| Inari [Inari aintzira] | Inarijärvi/Inarinjärvi (finlandiera) Aanaarjärv (Inariko samiera) | Inari | Inari | Inari |
| Indigirka [Indigirka ibaia] | Индигирка (errusiera) | Indigirka | Indigirka | Indigirka |
| Indre [Indre ibaia] | Indre | Indre | Indre | Indre |
| Inn [Inn ibaia] | Inn (alemana) | Inn / Eno | Inn | Inn |
| Ipar Dvina [Ipar Dvina ibaia] | Северная Двина (errusiera) | Dvina Septentrional | Dvina septentrionale / Dvina du Nord | Northern Dvina |
| Ipar Esporadak [Ipar Esporada uhartea] | Βόρειες Σποράδες (grekoa) | Esporadas del Norte | Sporades du Nord | Northern Sporades |
| Ipar itsasoa | | mar del Norte | mer du Nord | North Sea |
| Ipar kanala | North Channel (ingelesa) Sruth na Maoile (Irlandako eta Eskoziako gaelikoa) | canal del Norte | canal du Nord | North Channel / (antzinako izena) Irish Channel |
| Ipar lurmuturra | Nordkapp | cabo Norte | cap Nord | North Cape |

| Euskaraz | jatorrizko izena(k) | Gaztelania | Frantsesa | Ingelesa |
|---|---|---|--|--|
| | (norvegiera) | | | |
| Irlanda [Irlanda uhartea] | Éire (irlandera) | Irlanda | Irlande | Ireland |
| Irlandako itsasoa | Irish Sea (ingelesa) Muir Éireann / Muir Meann (irlandera) | mar de Irlanda | mer d'Irlande | Irish Sea / Mann Sea / Manx Sea |
| Irtyx [Irtyx ibaia] | Erqisi (txinera) Иртыш (errusiera) Ertis/Eptic (kazakhera) | Irtysh | Irtych | Irtysh |
| Isère [Isère ibaia] | Isère (frantsesa) | Isère | Isère | Isère |
| İskenderungo golkoa / Alexandretako golkoa | İskenderun Körfezi (turkiera) | golfo de İskenderun / golfo de Alejandreta | golfe d'İskenderun / golfe d'Alexandrette | Gulf of İskenderun / Gulf of Alexandretta |
| Islandia [Islandia uhartea] | Ísland (islandiera) | Islandia | Islande | Iceland |
| Isle [Isle ibaia] | Isle (frantsesa) Eila (okzitaniera) | Isle | Isle | Isle |
| Isonzo / Soča [Isonzo ibaia / Soča ibaia] | Soča (esloveniera) Isonzo (italiera) | Isonzo / Soča | Isonzo / Soča | Isonzo / Soča |
| Itaka [Itaka uhartea] | Ιθάκη (grekoa) | Ítaca | Ithaque | Ithaca/Ithaka |
| Italiar penintsula / Apeninoetako penintsula | Penísola italiana / Penísola appenninica (italiera) | península Itálica | péninsule italienne / péninsule italique | Italian Peninsula or Apennine Peninsula |
| Itsas Alpeak | Alpes marítimes (frantsesa) Alpi Maritime (italiera) | Alpes marítimos | Alpes marítimes | Maritime Alps |
| Itsaso Adriatikoa / Adriatikoa | Mare Adriatico (italiera) Deti Adriatik (albaniera) Jadransko morje (esloveniera) | mar Adriático | mer Adriatique | Adriatic Sea |
